



**Arartekoaren 2015R-1639-11 ebazpena, 2015eko martxoaren 11koa. Horren bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari gomendatu zaio EGA probetara sartzeko egun indarrean dagoen adin muga moldatu dezala, Hizkuntza Eskola Ofizialean maila bereko probak egiteko eskatzen den adinarekin pareka dadin.**

### **Aurrekariak**

1. Herritar batek kexa bat aurkeztu zion erakunde honi, Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) eskuratzeko probetarako betekizun gisa 17 urte edukitzea edo urte horretan betetzea eskatzearekin duen desadostasuna adierazteko.

Kexagilearen ustez, bereizkeriazkoa da adin muga hori, izan ere, beste hizkuntzetako gaitasun probak egiteko ez da betekizun hori eskatzen. Cambridgeko B1, B2 eta C2 mailetakoa azterketak jarri ditu adibide gisa. Kexan bertan adierazi zuen Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Batzordeari azaldu ziola kontua, eta nahitaez bete beharreko betekizuna zela erantzutera mugatu zela azken hori.

2. Erakunde honek aipatu sailari helarazi zion kexa, horren xede den betekizuna gai hori erregulatzen duen araudian mantentzeko egokitasunari buruzko iritzia eskatuz. Bestetik, euskararen ezagutza egiaztatzeko adin betekizun hori eskatzeak, baina beste hizkuntzen ezagutza egiaztatzeko ez eskatzeak dakarren kontraesanari buruzko iritzia ere eskatu zitzaion; izan ere, EGA txertatuta dagoen nazioarteko sare berberaren parte dira beste horien ziurtagiriak ere. Zentzu horretan, ziurtagiri hori, nazioarteko mailan, aipatu sailaren Euskara Zerbitzuak kudeatzen duela adierazi genuen, ALTEren (Association of Language Testers in Europe) parte gisa, eta Europako ereduak markoaren C1 mailari egokitu zaiola.
3. Arartekoari emandako erantzunean, adin muga oinarritzeko arrazoiak azaldu zituen Hezkuntza Sailak. Alde batetik, EGAK eskatzen duen eskakizun maila, parametro europarren arabera, C1 mailari dagokiola adierazi zuen. Hori gainditzeak trebetasun aurreratua eskatzen du, bai eta 17 urtetik behera eskuratzea oso zaila den heldutasun maila edukitzea ere. Beste alde batetik, EGAK ALTEren ikusapena gainditu zuela azaldu zuen, eta, horrela, elkarte horren kalitate parametroei egokitzen zaiela gutxiengo adina edukitzearen betekizuna, beste erakunde kide batzuek adin muga desberdinak ezarri gorabehera.



4. Arartekoak azalpen horren berri eman zion kexagileari, administrazioak berak hasieratik bertatik eman beharreko azalpena zela iritzita, herritarrari eman zitzaion erantzun laburraren orde. Edonola ere, salatutako praktikak ez zuela indarrean dagoen araudia urratu balioetsi zuen erakunde honek. Horrelaxe jakinarazi genion kexagileari. Horrek, ordea, berretsi egin zuen EGAko araudi erregulatzailerik murriztaile horrek oinarririk gabeko eskubide mugaketa zekarrela, izangaien heldutasun maila eskatzeko beharrezanean oinarritzen baita, eta beste hizkuntza batzuen kasuan gai bera modu ezberdinean jorratu dela ikusita.
5. Sailari berriro ere azaldu genion kontua, eta EGAko probetara sartzeko indarrean dagoen adin muga moldatzeko prestasunari buruz informa gintzan eskatu genion, beranduago aipatuko ditugun gogoeta juridikoetan oinarrituta moldatu ere.
6. Administrazioak ez zion lankidetzara eskaera berri horri erantzun; hortaz, errekerimendu gisa errepikatzen behartu gintuen. Ez zuen erantzunik izan 2014ko abenduaren 14ra arte. Bertan, Hezkuntza Sailak berretsi egin zituen aurreko idazkian aurkeztutako arrazoiak: *"EGAn indarrean dagoen adin-muga koherentea delako C1 mailako gaitasun-eskakizunekin eta ez dagoelako arrazoibide sendorik EGaren adin-mugari zuzentasuna ukatzeko, besteren mesedetan"*.

Arartekoak bere jardunbidea amaiaraztea erabaki du, honako ebazpena burutuz. Ondorengo gogoetetan oinarritu da ebazpena:

### Gogoetak

1. EGA egiteko 17 urteko adin muga indarrean dago ziurtagiri hori 1982ko irailaren 20ko aginduz sortu zenetik. Gainera, azterketa eskuratzeko azterketa-eredua zehazteko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den aginduan baieztatzen da aipatu adin muga.

Hezkuntza Sailaren Euskara Zerbitzuak kudeatzen du EGA nazioarteko mailan, eta ALTEren (Association of Language Testers of Europe) kide da, Europako eredu markoko C1 mailari (Effective Operational Proficiency) dagokion euskararen azterketa orokor gisa. Bere jarrera oinarritzeko xedez, azterketetara sartzeko adin muga gaitan, ALTEren barruan aldi berean hainbat araudi daudela gogorarazi du



sailak, eta horrek ez diola EGArI elkarte profesional horren kalitate ikuskapena gainditzea eragotzi.

Edonola ere, erakunde honek une batean ere ez du kontrakorik adierazi. Gure jardunbidean planteatu duguna administrazioak EGAko azterketara sartzeko indarrean dagoen adin muga moldatzeko aukera aztertzea zen. Izan ere, hori ez egiteko azaldutako arrazoiek, beste hizkuntza batzuen kasuan, ez dutela ebazpide zabalagoak ezartzea eragotzi egiaztatu dugu.

2. Hezkuntzaren antolamenduaren arabera, hizkuntzen irakaskuntzaren xedea ikasleak gaitzea da, hezkuntza sistemako ohiko etapetatik kanpo egoki erabil ditzaten hizkuntza ezberdinak. Kasu horretan, derrigorrezko irakaskuntza egin eta gero, zuzenean maila ertainetara sartzen baino ez du ahalbidetzen irakaskuntza horrek. Horrek azaltzen du, oro har, 16 urteko adina eduki behar izatea horietara sartzeko (edo 14, DBHn ikasten ez den beste hizkuntza baten ikasketa jarraitzeko).

EAEEn, hizkuntzen irakaskuntzaren ezarpenerako onartutako erregulazioak erregimen presentzian matrikulatuta ez dauden pertsonei zuzendutako ziurtagiriak eskuratzeko aukera aztertzen du (proba libreak).

EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialei (HEO) dagokienez, C1 gaitasun mailako probak antola ditzakete erregimen librean matrikulatutako ikasleentzat, eskola bakoitzak ematen dituen hizkuntzetan, euskararen kasuan salbu. Salbuespen tratu horren arrazoia, hain zuzen ere, Hezkuntza Sailak euskararen C1 gaitasun mailako ziurtagiria eskuratzeko aukera ematen duela da, EGAko proba libreetarako urteroko deialdien bidez egiten duena.

HEOko proba libreetan parte hartzeko eskatutako gutxiengo adina 16 urtekoa da. Horrenbestez, logikoa denez, EGAko proba libreetan ere adin horixe ezarri beharko litzatekeela eredutzat uste dugu.

3. Sailak baliatutako argudioetako batek ere ez du aldaketa horren jatorria baliogabetu, izan ere:
  - ALTEk HEOko gaitasun probak ere bere gain hartzen eta aitortzen ditu, nahiz eta adin muga txikiagoa izan. Horren aurrean, Hizkuntza Eskola Ofizialak ez direla ALTEren kide argudiatu du sailak, eta EGA baietz. Eta,



beraz, nekez hartuko eta aitortuko dituela ALTEk proba horiek. Hala ere, hemen azaleratutako kontuan ez da garrantzitsua Hizkuntza Eskola Ofizialak ALTEko kide diren ala ez; horiek egindako gaitasun probek ALTEren onarpena dutela baizik.

- Egia da C1 mailak 17 urtetik beherako pertsona askok ez duten trebetasun eta heldutasun maila eskatzen dituela. Bada, alde batetik, horrek ez die HEOko probetara sartzeari galarazten, zeinaren eskakizun maila baliokidea den. Beste alde batetik, egiaztatu beharreko trebetasun mailak justifikatuko luke, gehienaz ere, probaren eskakizun edo zailtasun maila, baina ez proba egin ahal izateko adin muga.

Ondorioz, sistemaren koherentziagatik, nahiz eta ez ezabatu EGA probara sartzeko gutxiengo adina edukitzeko betekizuna, gure ustez ez da zuzena aipatu adina ezberdina izatea, oro har, Hizkuntza Eskola Ofizialeko proba libreterako eskatzen denarekiko.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11. b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendioa aurkeztu zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari:

### **Gomendioa**

EGA probetara sartzeko indarrean dagoen adin muga moldatu dadila, Hizkuntza Eskola Ofizialean maila bereko probak egiteko eskatzen den adinarekin pareka dadin.